


Euskal AEko BPGk urte arteko %1,9ko murrizketa izan zuen 2013ko lehenengo hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldakuntza negatiboa izan da, baita ere, (%-0,5)

Euskal AEko BPG %1,9 murriztu zen urte artean 2013ko lehenengo hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera. Espainiako ekonomiaren beherakada %2,0 izan zenez, INEk argitaratutako aurrerapen-zenbatespenaren arabera, hamarren bat gutxiago murriztu da Euskal AEkoa.

Euskal AEko BPGk hiruhileko arteko %0,5eko murrizketa izan du 2013ko lehen hiruhilekoan. Hiruhilekoen arteko aldakuntza hau Espainiako ekonomiak edukitako berbera izan da, INEren zenbatespenaren arabera.

1. grafikoa. BPG m / p. Urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: EUSTAT - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta INE

Eskaintzaren ikuspuntutik BPGren urte arteko murrizketa lau jardura-sektore handiei zor zaie. Bai Lehen sektorean, bai Industrian eta bereziki Eraikuntzan behera egin du jardura-mailak. Baita ere Zerbitzuetan, baina apalago.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013
			I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-1,9	5,9	12,8	3,9	-2,1	8,4	-5,0
INDUSTRIA ETA ENERGIA	2,0	-2,4	-1,4	-2,4	-2,8	-3,1	-3,0
Manufaktura-industria	3,6	-2,1	-0,2	-2,3	-2,6	-3,2	-3,2
ERAIKUNTZA	-5,9	-6,3	-6,3	-6,4	-6,1	-6,3	-6,8
ZERBITZUAK	0,8	-0,3	0,4	0,0	-0,6	-0,9	-1,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,0	-1,1	0,0	-1,0	-1,3	-2,0	-2,0
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	3,9	0,0	2,5	1,1	-1,5	-1,9	-1,7
Gainerako zerbitzuak	-0,4	0,1	-0,4	0,0	0,4	0,3	0,0
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	0,5	-1,2	-0,5	-1,1	-1,6	-1,8	-2,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,2	-0,3	0,7	-0,2	-0,5	-1,3	-0,9
BPGda merkatuko preziotan	0,5	-1,2	-0,4	-1,0	-1,5	-1,7	-1,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak bilakaera negatiboa izan du, bai urte artean (%-5,0), bai hiruhileko artean (%-20,1).

Industrian, seigarren hiruhilekoz jarraian, jaitsiera dugu urte artean (%-3,0) eta baita hiruhileko artean ere (%-0,1) zazpigarren hiruhilekoz jarraian. Halere, hiruhileko artekoak dezente motelarazi du jaitsiera-erritmoa 2012ko laugarren hiruhileko datuen (%-1,9) aldean.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2012				2013
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-8,8	-27,5	25,3	31,0	-20,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,3	-0,2	-0,8	-1,9	-0,1
Manufaktura-industria	1,5	-1,9	-1,2	-1,7	1,5
ERAIKUNTZA	-2,1	-3,1	-1,6	0,3	-2,6
ZERBITZUAK	0,2	0,1	-0,6	-0,6	0,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,4	-0,5	-1,0	-0,2	-0,4
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,5	0,2	-0,1	-3,4	1,7
Gainerako zerbitzuak	-0,1	0,4	-0,7	0,7	-0,4
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-0,2	-0,5	-0,6	-0,6	-0,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,1	-0,3	0,8	0,2	-1,7
BPGda merkatuko preziotan	-0,3	-0,4	-0,5	-0,5	-0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntza areago jaitsi da; hiruhileko honetan eta urte artean %6,8. Jaitsiera hau aurreko hiruhilekoa baino bost hamarren handiagoa da. 2012ko laugarren hiruhilekoan, hiruhileko artekoa positiboa (%+0,3) izan zen; aurreko hiruhileko honetan negatiboa berriz ere (%-2,6).

Zerbitzuen jarduera globalean urte arteko %1,0ko jaitsiera dugu, 2012ko laugarrenean baino hamarren bat gehiago; jarduerak etengabe egin du behera, apalago 2013ko lehen hiruhilekoan. Hala, hiruhilekoen artean hazkunde txikia dago, %0,1.

Urte artean zerbitzuetako jarduera-jaitsierarik aipagarriena **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan da**, %2,0, eta ondoren **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak adarrean**, %1,7. **Gainerako zerbitzuetan**, non besteren artean jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak ditugun, ez dugu jaitsierarik, eta bakarra da, baina hazkunderik ere ez dago (%0,0).

Hiruhileko artean hazkunderik handiena **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** adarrean dugu, %1,7. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan**, eta **Gainerako zerbitzuetan** tasa negatiboak ditugu, %0,4.

Sektore-agregatuaren joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera negatiboak ekarri ditu, %-2,0 urte artean eta %-0,3 hiruhileko artean. Urte artean areagotu egiten da, beste hiruhileko batez, 2012ko lehen hiruhilekoan hasitako jaitsiera; hiruhilekoen artekoa (%-0,3) 2012ko laugarrenean izandakoaren erdia da.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013
			I	II	III	IV	
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	0,2	-1,2	0,0	-1,7	-1,5	-1,6	-1,2
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,3	-1,0	0,0	-1,4	-0,9	-1,6	-1,7
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-0,1	-2,1	-0,2	-2,9	-3,4	-1,6	0,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-1,8	-5,4	-5,5	-5,8	-4,9	-5,5	-4,7
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	7,1	-4,0	-1,3	-4,0	-4,8	-5,8	-2,8
Gainerako kapital-eraketa gordina	-5,1	-6,0	-7,1	-6,5	-5,0	-5,4	-5,5
BARNE-ESKARIA	-0,3	-2,2	-1,4	-2,7	-2,3	-2,5	-2,0
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	5,5	-5,2	-2,6	-0,1	-8,1	-9,6	-6,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	4,0	-6,4	-3,8	-2,7	-8,8	-10,2	-6,5
BPGda merkatuko preziotan	0,5	-1,2	-0,4	-1,0	-1,5	-1,7	-1,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eskariaren aldetik, kanpo-sektoreak ekarpen positibo txikia egiten dio BPGren hazkunderi, baina urte artekoak negatiboak dira bai esportazioetan, bai inportazioetan.

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo pribatuan), aurreko hiruhilekoetan bezala desazelerazioa dago, areagotua: %1,7ko murrizketa aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Jaitsiera hau aurreko hiruhilekoa (%-1,6) baino hamarren bat handiagoa da. Hiruhileko artean, jaitsiera %0,1 izan da, aurrekoan (%-0,9) baino dezente txikiagoa.

Kontsumo Publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua), sei hiruhilekoz urte arteko tasa negatiboak izan ondoren, %0,5 hazi da. Hiruhileko artean %4,4 hazi da.

Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastuak hazkundera izan du urte artean, eta murrizketa **Familia-etxeen Azken Kontsumoaren Gastuak**; bien bateratzeak **Azken Kontsumoaren Gastuaren** %1,2ko jaitsiera ekarri du. Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera dago, zortzi hamarren.

Kapital eraketa gordinean (Inbertsioan) jaitsiera dago berriz urte artean (%-4,7), gutxixeago aurreko hiruhilekoan (%-5,5) baino. Hiruhilekoen artean jaitsiera dago baita ere, %1,2. Kapital

Eraketa Gordinaren bi osagaietan, ekipo-ondasunetan eta eraikuntzan, tasak negatiboak dira urte artean. Hiruhileko artean, ekipo-ondasunetako inbertsioaren bilakaera (%0,5) hobe da eraikuntzari lotutakoarena (%-1,9) baino.

Barne eskaria, zeina osatzen baitute Azken Kontsumoko Gastuak eta Kapital Eraketa Gordinak, gutxiago murriztu da 2012ko laugarren hiruhilekoan. Urte artean %2,0ko jaitsiera dago hiruhileko honetan; %2,5 zen aurreko hiruhilekoan.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2012				2013
	I	II	III	IV	I
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	0,5	-1,0	-0,1	-0,8	0,8
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,0	-0,9	0,2	-0,9	-0,1
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	2,2	-1,7	-1,4	-0,7	4,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,1	-1,2	0,4	-2,8	-1,2
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	-2,6	-0,7	-0,4	-2,2	0,5
Gainerako kapital-eraketa gordina	-1,9	-1,3	0,8	-3,1	-1,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-2,0	-2,4	-0,8	-4,6	1,3
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-1,6	-3,2	-0,2	-5,5	2,5
BPGda merkatuko preziotan	-0,3	-0,4	-0,5	-0,5	-0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo sektoreak BPGri eginiko ekarpina positiboa izan da, aurreko hiruhilekoetan bezalaxe; halere, kanpo-merkataritzak BPGren hazkundeari eginiko ekarpenean murrizketa nabarmena ikusten da, kanpo-merkataritzaren urritze-garaian. Kanpo-saldoaren ekarpen positibo hau gertatzen da inportazioak eta esportazioak berdina-berdina gutxitu direlarik urte artean, %-6,5.

BPGren jaitsierak, bai urte artekoak, bai hiruhileko artekoak behera eragin dio enplegu-mailari, **Dedikazio Osoko Baliokidetzako Lanpostuetan** neurturik. Urte artean enplegua %2,9 jaitsi da. Hiruhileko artean, %0,7.

Enplegua, urte artean, jarduera-adar guztietan galdu da. Hiruhileko artean Zerbitzuetan bakarrik dugu hazkunde txiki bat, %0,1. Industria %5,3 jaitsi da urte artean, erritmoa mantentzen delarik, eta aurreko hiruhilekoaren aldean %1,7 jaitsi da. Eraikuntzan enpleguan jaitsierak areagokoak dira Industrian baino. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean lanpostu-galera %12,7koa izan da. 2012ko laugarren hiruhilekoaren aldean, jaitsiera %5,0 da. Zerbitzuetan urte arteko eta segidako seigarren jaitsiera dago, %1,0. Hiruhilekoen arteko terminoetan %0,1eko hazkundera. Lehen sektorean ere enplegua bai urte artean (%-5,5), bai hiruhileko artean (%-0,2) jaitsi da.

Lurraldeetako BPGri begiratzuz gero, urte artean Gipuzkoak du jaitsierarik handiena, %2,1; Araban %2,0 eta Bizkaian %1,7. Hiruhileko artean, Araban %0,5eko jaitsiera, Gipuzkoan %0,6, Bizkaian %0,3.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es. Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua